# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

## 5569

*EBAZPENA, 2008ko apirilaren 18koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Barakaldoko (Bizkaia) udalerrian Mebunik SA enpresak sustatutako produktu metalikoak eta alanbrezkoak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua emateko dena.*

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Mebunik SA enpresak Barakaldoko (Bizkaia) udalerrian produktu metalikoak eta alanbrezkoak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua eman ziezaiola eskatu zion Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari, uztailaren 1eko 16/2002 Legean, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoan ezarritakoa betez. Eskaerarekin batera ondorengo agiri teknikoak erantsi ziren:

● «Mebunik SA enpresaren ingurumeneko baimen bateratua izapidetzeko proiektu teknikoa» (2006ko abendua), eskaerarako agiriak eta eranskinak dituen liburuki batean eta eranskinen bi liburukitan aurkeztua.

● «Mebunik SA enpresaren ingurumeneko baimen bateratua izapidetzeko laburpen ez teknikoa» (2006ko abendua) Proiektu Teknikoaren liburuki berean aurkeztua.

Erreferentzia-baimena eskatzeko orduan, Mebunik SA enpresak, besteak beste, altzari metalikoak fabrikatzeko jarduera-baimena zuen, 1999ko otsailaren 17koa. Halaber, enpresa sustatzaileak honako hauei dagozkien baimenak zituen: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak emandako kolektorera isurtzeko baimena eta 2007ko maiatzaren 17an aldatua, urari buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz, hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, 2005eko maiatzak 5ekoa, eta EAEko industria-hondakin geldoen kudeatzaileen erregistroan izen-ematea, 2003ko urtarrilaren 21ekoa, hondakinei buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, Barakaldoko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatu zien.

2007ko martxoaren 22an eta 2007ko urriaren 23an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 14an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Mebunik SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, hainbat alegazio aurkeztu direla egiaztatu da, eta modu laburtuan I. eranskinean jaso dira.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Barakaldoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Mebunik SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpenaren Proposamena gehituz.

2008ko martxoaren 27an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen hartan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren Ebazpen Proposamenari lotuta.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Mebunik SA enpresaren kasuan, honako baimenak behar ditu: hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa, saneamendu-sistema bateratura isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkionak eta lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzearen gainekoak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuk ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Mebunik SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne

hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Barakaldoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri egokienen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, metal eta plastikoen azalerak tratatzeko sektorearentzat Europako Batzordearen 2006ko abuztuko erreferentziako agiriaren (BREF) edukia kontuan hartu da (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics). Gainera, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoa da Ontzi eta Ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta betearazten duen Araudia onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Mebunik SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Barakaldoko (Bizkaia) udalerriko Ibarreña Industrialdeko Zubileta Bidea kaleko 25. zenbakian egoitza soziala duen Mebunik SA enpresari, Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, produktu metalikoak eta alanbrezkoak fabrikatzeko jarduerarako, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Tratamendurako erabilitako kubeten edo linea osoen bolumena 30 $m^3$-tik gorakoa denean, prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez metalen eta plastikozko materialen gainazala tratatzeko instalazioak» izenekoan.

Mebunik SA enpresak ondoren deskribatuko den jarduerarako eskatzen du ingurumeneko baimen bateratua:

Mebunik SA enpresa Barakaldoko udalerrian dagoen Ibarreña Industrialdeko Zubileta Bidea kaleko 25ean kokatua dago eta guztira 14.135 $m^2$-ko azalera du.

Enpresaren ekoizpen-ahalmena 200.000 unitatekoa da auto-zerbitzuko orgentzat, 65.000 unitate egiturazko erakustokientzat, 3.000.000 unitate erakustoki zintzilikatuentzat eta 50.000 unitate gurpil-edukiontzientzat.

Erabilitako energia-iturriak energia elektrikoa eta gas naturala dira.

Prozesua lehengaiak hartuz hasten da. Fabrikatu beharreko materialaren arabera eta alanbrezko edo txapazko bobinak oinarri hartuta, eraiki beharreko elementuaren hainbat osagairen zuzenketa eta mozketa egiten da, horretarako instalatutako makinen bidez. Pieza desberdinak moztu eta zuzentzen direnean, horien tolestaketa, trokelaketa eta konformazioa egiten da.

Piezak osatu ostean, mihiztatze-katera pasatzen dira. Han elementu desberdinak lotu eta soldatzen dira, fabrikatu beharreko piezen arabera. Soldatzea erabat automatikoa da ekarpen edota erresistentzia bidez, horretarako ekipamendua erabiliz.

Landutako piezak hiru prozesu desberdinen bidez estal daitezke, lortu beharreko akaberaren arabera:

Zinkezko bainu elektrolitikoa: bi instalazio berdin daude transfer-sistemaren bidez osatuak. Kateak hiru orga ditu eta piezak upel desberdinetan zehar pasatzen dituzte: koipegabetze kimikoa, koipegabetze elektrolitikoa, desugertzea, zink azidozko bainu elektrolitikoa, pasibazioa, lehortzea, spray bidezko bi garbiketa, murgiltze bidezko lau garbiketa, zigilatzea eta lehortzea.

Prozesua egin ostean, piezak Epoxi-poliester hautsezko pintaketa-prozesura edo azken muntaia-katera pasatzen dira, eskatutako akaberaren arabera.

Epoxi-poliester hautsezko pintaketa: prozesu hau aurrekoaren erabat independentea da. Piezak, fosfatatze-tunelean sartzen dira, ondoren, lehortze-labera, epoxi-poliester hautsezko erretxinarekin pintatzeko kabinara eta polimerizatze-labera eramaten da. Etapa horiek jarraian deskribatzen dira:

● Fosfatatze-tunela: xedea pintatu beharreko materialaren garbiketa eta azaleraren prestaketa da. Honakoak ditu: koipegabetze-eremua, desugertze- eta fosfatatze-eremua eta irakuzketa hotzean egiteko eremua.

● Lehortze-tunela: xedea, fosfatatze-tunela zeharkatu ostean eta epoxi hautsa aplikatu aurretik piezak lehortzea da.

● Epoxi-poliester hautsezko erretxina aplikatzen duen pintura-instalazioa eta polimerizazio-labea. Honakoak ditu: pintura-kabina, jaurtitze-ekipamendua, polimerizatze-labea eta aginte-idazmahaia.

Piezak pintatu edo zinkezko bainu elektrolitikoetatik eta ondoren zigilatzetik soilik pasa ondoren, kasuen arabera, piezak muntatzeari ekiten zaio azken altzaria eraikitzeko (supermerkatuko orga, apalategiak, etab.), gurpilak, heldulekuak, etab. gehituz. Azken horiek enpresa osagarriek fabrikatzen dituzte.

Altzarien fabrikazioa amaitu ostean, paketatu eta biltegiratu egiten dira dagokion eskaera edo garraioa osatu arte. Ondoren, bidalketa-eremura garraiatzen dira, kamioien karga-nasatik gertu, han kamioietan kargatu eta bezeroei banatzeko.

Mebunik SA enpresak atmosferara isurtzen duten 15 foku zarratu ditu, ondoko instalazioei lotuta: soldadura, zinkezko bainu elektrolitikoa eta hautsezko pintaketa (fosfatatze-tuneleko koipegabetzea, fosfatatzea, fosfatatze- eta polimerizatze-tuneleko lehortzea).

Gainera, Kerne lerroko lehortegien erregailuetan, errekuntza-gasen isurtze barreiatuak sortzen dira.

Bestalde, industriako hondakin-uren (araztegian sortzen direnak) eta hondakin-ur sanitarioen isurketa sortzen du jarduerak eta kolektorera isurtzen dira; eta euri-urak Cadagua ibaiko lau punturen bidez isurtzen dira.

Honako hauek dira Mebunik SA enpresak aplikatzen dituen eta Europako Batzordearen metal eta plastikoen gainazalak tratatzeko (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics). 2006ko abuztuko erreferentziako dokumentuan (BREF) jasotzen diren teknika erabilgarri onenak: prozesuko disoluzio guztiak astintzea, etengabeko kontrola upelak erabat lehor ez daitezen, andelen isolamendu termikoa, hozte-sistema itxiak, prozesuko disoluzioaren likatasuna murriztea, arrasteei aurrea hartzeko neurriak (zertxobait okertuta dauden piezak kokatzea, jario-denbora nahikoa, drainatze-kolektorea, ur-kontsumoa murriztea hainbat urberritzeren bidez, urberritzearen ura berrerabiltzea, metalaren kontrol elektrokimikoa, kromo-pasibazioa kromoa (III) erabiliz, koipegabetze elektrolitikoa hainbat etapatan, disoluzioak iragaztea ikatz aktiboaren bidez, xurgapena upelen lerroan, instalazioak hondakin-uren tratamendurako.

Bigarrena.– Mebunik SA enpresak sustatuta produktu metalikoak eta alanbrezkoak fabrikatzeko Barakaldoko udalerrian dagoen jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Mebunik SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Mebunik SA enpresak produktu metalikoak eta alanbrezkoak fabrikatzeko duen instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak

tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Mebunik SA enpresak produktu metalikoak eta alanbrezkoak fabrikatzeko duen instalazioak foku hauek ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

| Foku zk. | Foku-kodea | Isurtze-fokuaren izena | Garaiera (m) | Barne-diametroa (m) | Katalogazioa | | UTM koordenatuak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Taldea | Epigrafea | X | Y |
| 1 | 48001693-01 | EA 2-Fosfatatze-tuneleko aireztapena (sarrera) | 12 | 0,5 | C | 3.12. | 502.042 | 4.791.125 |
| 2 | 48001693-02 | EA 3-Fosfatatze-tuneleko aireztapena (irteera) | 12 | 0,5 | C | 3.12. | 502.042 | 4.791.125 |
| 3 | 48001693-03 | EA 4-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela I) | 8,3 | 0,24 | C | 3.1.1. | 502.046 | 4.791.140 |
| 4 | 48001693-04 | EA 5-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela II) | 8,6 | 0,24 | C | 3.1.1. | 502.046 | 4.791.140 |
| 5 | 48001693-05 | EA 6-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela III) | 8,4 | 0,25 | C | 3.1.1. | 502.046 | 4.791.140 |
| 6 | 48001693-06 | EA 9-Desugertzearen aireztapena (harshow - lerroa I) | 11 | 0,74 | C | 3.12. | 502.017 | 4.791.087 |
| 7 | 48001693-07 | EA 10-Desugertzearen aireztapena (harshow - lerroa II) | 11 | 0,45 | C | 3.12. | 502.017 | 4.791.087 |
| 8 | 48001693-08 | EA 11-Desugertzearen aireztapena (kerne lerroa) | 11 | 1 | C | 3.12. | 502.016 | 4.791.098 |
| 9 | 48001693-09 | EA 12- Soldadurako gasen aireztapena (soldadura-eremua) | 8,3 | 0,55 | C | 3.12 | 501.985 | 4.791.079 |
| 10 | 48001693-10 | EA 13- Soldadurako gasen aireztapena (prentsa-eremua) | 7,2 | 0,55 | C | 3.12 | 502.056 | 4.791.107 |
| 11 | 48001693-11 | EA 19- Polimerizatze-labearen erregailua | 8 | 0,35 | C | 3.1.1. | 502.006 | 4.791.147 |
| 12 | 48001693-12 | EA 20- Aire-errezelak polimerizatze-labearen epoxi pintura | 6,6 | 0,48 | C | 3.12 | 502.006 | 4.791.147 |
| 13 | 48001693-13 | EA 21- Aire-errezelak polimerizatze-labearen epoxi pintura (sarrera) | 6,6 | 0,48 | C | 3.12 | 502.006 | 4.791.147 |
| 14 | 48001693-14 | EA 24- Berotze edo koipegabetze upelaren erregailua | 9 | 0,16 | C | 3.1.1. | 502.004 | 4.791.091 |
| 15 | 48001693-15 | EA 25- Berotze edo koipegabetze upelaren erregailua | 9 | 0,16 | C | 3.1.1. | 502.004 | 4.791.091 |

Gainera, isurtze barreiatuak sortzen dira zinkatze-lerroko zigilatze-prozesuetan eta iragazpenaren aurretik egiten den pintaketa-prozesuan.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

| Fokuak | Substantziak | Isurtzeko muga-balioak |
|---|---|---|
| EA 2-Fosfatatze-tuneleko aireztapena (sarrera) | Guztizko partikulak (GP) | 30 mg/Nm$^3$ |
| EA 3-Fosfatatze-tuneleko aireztapena (irteera) | Guztizko partikulak (GP) | 30 mg/Nm$^3$ |
| EA 4-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela I) | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | 300 ppm |
| EA 5-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela II) | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | 300 ppm |
| EA 6-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela III) | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | 300 ppm |
| EA 9-Desugertzearen aireztapena (harshow-lerroa I) | Guztizko partikulak (GP) | 30 mg/Nm$^3$ |
| | Guztizko kromoa ($Cr_T$) | 0,2 mg/Nm$^3$ |
| | Sufre oxidoak ($SO_x$) | 10 mg/Nm$^3$ |
| | Azido fluorhidrikoa (HF*) | 5 mg/Nm$^3$ |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$*) | 500 mg/Nm* |
| | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG* gisa neurtuta) | 150 mg/Nm$^3$ |
| EA 10-Desugertzearen aireztapena (harshow-lerroa II) | Guztizko partikulak (GP) | 30 mg/Nm$^3$ |
| | Sufre oxidoak ($SO_x$) | 10 mg/Nm$^3$ |
| | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG* gisa neurtuta) | 150 mg/Nm$^3$ |
| EA 11-Desugertzearen aireztapena (kerne lerroa) | Guztizko partikulak (GP) | 30 mg/Nm$^3$ |
| | Azido klorhidrikoa (HCl) | 30 mg/Nm$^3$ |
| | Sufre oxidoak ($SO_x$) | 10 mg/Nm$^3$ |
| | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG* gisa neurtuta) | 150 mg/Nm$^3$ |
| EA 12- Soldadurako gasen aireztapena (soldadura-eremua) | Guztizko partikulak (GP) | 150 mg/Nm$^3$ |
| EA 13- Soldadurako gasen aireztapena (prentsa-eremua) | Guztizko partikulak (GP) | 150 mg/Nm$^3$ |
| EA 19- Polimerizatze-labearen erregailua | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | 300 ppm |
| EA 20- Aire-errezelak polimerizatze-labearen epoxi pintura | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) | 150 mgC/Nm$^3$ |
| EA 21- Aire-errezelak polimerizatze-labearen epoxi pintura (sarrera) | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) | 150 mgC/Nm$^3$ |
| EA 24- Berotze edo koipegabetze upelaren erregailua | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | 300 ppm |
| EA 25- Berotze edo koipegabetze upelaren erregailua | Karbono monoxidoa (CO) | 500 ppm |
| | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | 300 ppm |

*Ebazpen honetako C.1.b) puntuan adierazten den moduan BKEek egindako atmosferarako neurketen txostenean lortutako emaitzen arabera, aipatu kutsatzaileari ezarri beharreko muga aztertuko da.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurketarako muga-balioak gainditu behar, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

c) EA 20 eta EA 21 fokuetarako neurtzen diren KOHei dagokienez (Karbono Organikoaren Guztizko (KOG) bezala neurtuta), ezarritako mugak errespetatuko dira, baldin eta neurketa guztien batez bestekoek isurketaren muga-balioak gainditzen ez badituzte eta ordubeteko neurketa batek ere isurketaren muga-balioak gainditzen ez baditu (baino gehiagoko aldea).

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari

buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: metalen tratamendua eta estaldura; zinkatzea eta pintura.

Jarduera-taldea: 16.

Mota-taldea-EJSN: 3-16-28.51.

| Isurketa-puntua | Hondakin-ur mota | Isurketaren jatorria | Ingurune hartzailea | Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Industria-urak | Zinkatze- eta pintura-prozesuetan sortutako industria-uren arazketaren efluentea. | Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorea | X: 502.086<br>Y: 4.791.093 |
| | | Hozte-sistemen garbiketa | | |
| | Ur sanitarioak | Komunak eta aldagelak | | |

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) Industria-urak isurtzea.

| | |
|---|---|
| Urteko gehienezko bolumena | 26.155 $m^3$/urteko |

b) Euri-urak isurtzea.

| | |
|---|---|
| Urteko gehienezko bolumena | 10.625 $m^3$/urteko |

B.1.2.3.– Isurien gehienezko muga-balioak.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera doazen isurketei buruzko araudian agertzen diren mugak eta baldintzak bete behar ditu azken isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin. Era berean, guztizko kromoa, nikela eta zinka bezalako elementuen parametroak eta honako muga hauek bete beharko dira:

| Parametroak | Isurtzeko muga-balioak |
|---|---|
| Kromoa guztizkoa | 0,75 mg/l |
| Nikela | 2 mg/l |
| Zinka | 2 mg/l |

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte funtsean:

Mebunik SA enpresak prozesuko uren tratamenduko instalazioa du eta bi poliester-andel bertikalez osatua dago, bakoitza 20 $m^3$ -ko ahalmenarekin. Bertan, hondakinen bainu azidoak eta alkalinoak jaso eta biltegiratzen dira, ondoren 20.000 l-ko ahalmena duen andelean homogeneizatu eta neutralizatzeko.

Efluentea neutralizatu ostean, malutapen-prozesua aplikatzen zaio, azkenik, lohiak orrizko jalkitze-putzu batean jalkitzeko, isurketa-uretik bereiziz. Hondakin-ura, azken isurketa baino lehen, pH-a doitu eta kontrolatzeko ekipamendutik pasatzen da kolektorera isurtzeko ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko. pH-a onargarri gisa ezarritako mailatik kanpo dagoenean, urak lurrazpiko andelera birbideratzen dira larrialdietarako kutxetaren bidez, arazketa-prozesu berria hasiz.

Jalkitako lohiak lodigailu batera bideratzen dira eta prentsa-iragazkitik pasa ostean, hondakin arriskutsu gisa kudeatuko diren opilak lortzen dira.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aldizka eginiko azterketen emaitzek ezarritako mugak gainditzen dituzten parametroak antzematen ez dituztela kontutan hartuta, instalazioaren dimentsionamendua egokia dela uste da. Gainera, 20 $m^3$-ko ahalmena duten hiru andeli esker, ustekabeko edo halabeharrezko isurketen kasuan jarduteko nolabaiteko marjina dute.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Mebunik SA enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, akaberako isurketa-mota bakoitza kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzeneko lekuan kokatuko dira ikuskatzaileak egoki deritzonean eta erregistro grafikodun pH-neurgailu jarraikia eta emari-neurgailua totalizazio-sistemaduna izango ditu.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia eta gertutasun printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoak izan beharko dituzte. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Barakaldoko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Fabrikazioa».

Prozesu honetan sortzen diren hondakin arriskutsuak beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodifikatuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak prozesuan.

● 2. prozesua: «Zinkatze eta bernizatzea».

○ 1. hondakina: «Desugertze azidozko bainu agortua».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 2/ 1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H8//A220//B3127.

– EHZ: 110105.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 tona.

Zinkatze-instalazioan piezak desugertzeko prozesuan sortzen da; disoluzio urtsu kontzentratu eta azidoa da. Hondakin horren zati bat araztegira dosifikatzen da eta beste bat zuzenean erabilera-puntutik kentzen da baimendun kudeatzaileari emateko.

○ 2. hondakina: «Koipegabetze disoluzio alkalinoa».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 2/ 2.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L21//C24//H8//A220//B3127.

– EHZ: 110113.

– Urtean sortutako kantitatea: 16 tona.

Piezak koipegabetzeko bainua erabiltzearen ondorioz sortzen da zinkatze-instalazioan. Disoluzio urtsu basikoa da eta koipe-eduki altuak ditu. Hondakin horren zati bat araztegira dosifikatzen da eta beste bat zuzenean erabilera-puntutik kentzen da baimendun kudeatzaileari emateko.

○ 3. hondakina: «Kromo III pasibatze bainu agortua».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 2/ 3.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H8//A220//B3127.

– EHZ: 110106.

– Urtean sortutako kantitatea: 15 tona.

Zinkatze-piezen pasibatze-prozesuan sortzen da; lohi azidoak dira. Hondakin horren zati bat araztegira dosifikatzen da eta beste bat zuzenean erabilera-puntutik kentzen da baimendun kudeatzaileari emateko.

● 3. prozesua: «Pintaketa».

○ 1. hondakina: «Fosfatatze bainu agortua».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 3/ 1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H6//A220//B3144.

– EHZ: 110106.

– Urtean sortutako kantitatea: 18 tona.

Pintaketa-prozesuaren barruan, hautsezko pintaketa aurretik egiten den aurre-tratamenduan sortzen da. Hondakin horren zati bat araztegira dosifikatzen da eta beste bat zuzenean erabilera-puntutik kentzen da baimendun kudeatzaileari emateko.

○ 2. hondakina: «Pintura hautsa».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 3/ 2.

– Hondakinaren kodea: Q08//D13//S12//C41//H05//A220//B3144.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: 18.140 kg.

Pintura-prozesuaren barruan sortzen da fabrikazio-piezen estalduran; pintura-hautsa da. Hondakinarentzat identifikatutako poltsa batean jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «Gogortutako pintura eta bernizak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 3/ 3.

– Hondakinaren kodea: Q08//D15//S12//C41//H05//A220//B3144.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Pintaketa-prozesuan sortzen da; erabileratik kanpo geratu diren pintura- eta berniz-hondarrak dira. Hondakinarentzat identifikatutako kaxan jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

● 4. prozesua: «Hondakin uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Araztegiko opilak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 4/ 1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//S27//C24//H05//A220//B0006.

– EHZ: 190205.

– Urtean sortutako kantitatea: 48.952 kg.

Piezen urberritze-prozesuetan eta bainu agortuen zati batzuetan, zinkatze- zein pintura-katean, sortzen diren uren araztegi-instalazioan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da.

● 5. Prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Industria olioak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R9//L8//C51//H5/6//A220//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 960 L.

Zenbait makinatan olioa aldatzeko eragiketetan sortzen da; olio mekaniko eta hidrauliko erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortu den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Berun azidozko bateriak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C18/23//H8//A220//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: Unitate 1.

Beruna eta disoluzio azidoa duten bateria erabiliak birjartzean sortzen da. Zuzenean erretiratzen da sortzen denean, baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 3. hondakina: «Bateriak eta metagailuak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C11/16//H6//A220//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da; pilak multzoka jasotzen dira; merkurioa, kadmioa eta zinka bezalako metalak eta oxido metalikoak dituzten beste metalak dituzten pilak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 4. hondakina: «Merkurioa duten hodi fluoreszente edota hondakinak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6//A220//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 114 kg.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 5. hondakina: «Zuntz zementua».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 5.

– Hondakinaren kodea: Q6//D16//S21//C25//H7//A220//B0019.

– EHZ: 170605.

– Urtean sortutako kantitatea: 250 kg.

Fabrika-estalkiak konpontzeko operazioetan sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako big bagean biltzen da, horretarako berariazko eremuan.

○ 6. hondakina: «Ekipo elektriko eta elektroniko baztertuak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 6.

– Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/18//H6/14//A220//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birjartzeko eragiketetan sortzen da; baztertutako hainbat ekipo ofimatiko eta elektroniko dira. Hondakinarentzat identifikatu den kaxan jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 7. hondakina: «PCB-a duten transformadoreak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/5/ 7.

– Hondakinaren kodea: Q12//D15//S10//C32/51//H6/7//A220//B0019.

– EHZ: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Mantentze-lan orokorreko azpiprozesuaren hondakin gisa sortzen da; kudeatzaile baimenduari entregatzeko erretiratzen da zuzenean.

○ 8. hondakina: «Trapu kutsatuak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 8.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C41/51//H5//A220//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 549 kg.

Ehunak bildu eta pilatzerakoan sortzen da; olioz, disolbatzailez, etab. bustitako trapuak, larruzko eskularruak eta beste material batzuk dira. Hondakinarentzat identifikatutako Big bag batean jasotzen da. Sortzen den postua(k) zehaztu behar d(ir)a eta, behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 9. hondakina: «Ehunak ez diren material kutsatuak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 9.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C41/51//H5//A220//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 253 kg.

Ehunak ez diren material kutsatuak bildu eta pilatzerakoan sortzen da; olioz, disolbatzailez, etab. bustitako trapuak, nitrilozko eskularruak eta beste material batzuk dira. Hondakinarentzat identifikatutako Big bag batean jasotzen da. Sortzen den postua(k) zehaztu behar d(ir)a eta, behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 10. hondakina: «Kutsatutako plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 10.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A220//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 195 kg.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; bereziki olioak, pinturak eta disolbatzaileak eduki dituzten plastikozko ontziak dira. Hondakinarentzat identifikatu den palet batean jasotzen da, sortzen den postuen ondoan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 11. hondakina: «Presioan egon diren ontziak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 11.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S-G36//C41/51//H3b//A220//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 36 kg.

Ontzi hutsak jaso eta elkartzean sortzen da. Olioak, pinturak, pintatzeko gehigarriak, disolbatzaileak, itsasgarriak, taladrina eta tinta jaso dituzten aerosolak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako kutxan biltzen da sortzen den lekuetan; behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 12. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez halogenatua».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 12.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b/5//A220//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Mantentze-lan mekanikoko piezen garbiketan sortzen da. Kudeatzaileak emandako bidoian jasotzen da.

○ 13. hondakina: «Gatzezko pila alkalinoak».

– Identifikazioa: A 48026421/20/485999/ 5/ 13.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C06/07//H14//A220//B0019.

– EHZ: 160604.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 unitate.

Pila agortuak berriz jartzeko eragiketetan sortzen da. Plastikozko kaxetan jasotzen dira bulegoen eraikineko behe solairuan.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahastuko balira, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar

izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Mebunik SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Mebunik SA enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Mebunik SA enpresak.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Mebunik SA enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Mebunik SA enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Mebunik SA enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

m) Mebunik SA enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Mebunik SA enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

p) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

q) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Mebunik SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

| Hondakinaren izena | EHZ kodea | Zein prozesuri lotuta | Zenbatetsitako ekoizpena |
|---|---|---|---|
| Toner-kartutxoak | 080318 | Inprimatzea | 65 unitate |
| Zura | 150103 | Paketatzea | 20.460 kg |
| Hirikoekin pareka daitezkeen hondakinak | 200000 | Sukaldea, jangela eta bulegoak | 308 kg |
| Papera eta kartoia | 200101 | Paketatzea | 9.875 kg |
| Txatarra | 200140 | Mozketa eta zuzenketa | 263.320 kg |

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Mebunik SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, bai eta hondakin guztien sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua ere. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Mebunik SA enpresak ondoko ekintzak burutu beharko ditu:

● Likido korrosiboen kanpo-biltegiratzean produktu kimikoen joan-etorrietan jarioak egoteko arriskuari dagokionez, produktu horien hornidurarako prozedura egokia ezarriko da, manipulatzerakoan gerta daitezkeen isurketak ekiditeko.

● Olio-hornidurarako prozedura egokia ezartzea, biltegiratze-eremuan egon daitezkeen joan-etorrietan gerta daitezkeen jarioak ekiditeko.

● Likido korrosiboen hornidurarako prozedura egokia ezartzea, prozesuko barne-biltegiratzean gerta daitezkeen jarioak ekiditeko.

● Zuzenketa- eta mozketa-makinen noizbehinkako garbiketa egitea, koipeak eta fluxuak lurrerantz meta ez daitezen horretarako diseinatu ez diren eremuetatik barna.

● Bilketa-ontziak aldatzeko prozedura ezartzea, horien etengabeko presentzia bermatuz hagaxken zuzenketa- eta mozketa-makinek gainezka egin ez dezaten.

● Tolestaketa-eremuan beren ezaugarriengatik ihesak eta jarioak izateko arriskua duten makinen berariazko mantentze-lanak burutzea.

● Hondakin-olioen biltegiratzean ontzien egoera txarra dela eta gerta daitezkeen jarioak ekiditeko, egoera onean dauden bidoiengatik aldatuko dira berehala. Bidoi horiek olio-horniduran erabilitakoetatik hartuko dira, egoera txarrean dauden kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatuz.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Mebunik SA enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

| Fokua | Foku-kodea | Fokuaren izena | Neurtu beharreko parametroak | Kontrolen maiztasuna |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 48001693-01 | EA 2-Fosfatatze-tuneleko aireztapena (sarrera) | Guztizko partikulak (GP) | 5 urte |
| 2 | 48001693-02 | EA 3-Fosfatatze-tuneleko aireztapena (irteera) | Guztizko partikulak (GP) | 5 urte |
| 3 | 48001693-03 | EA 4-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela I) | Karbono monoxidoa (CO) | 5 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | |
| 4 | 48001693-04 | EA 5-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela II) | Karbono monoxidoa (CO) | 5 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | |
| 5 | 48001693-05 | EA 6-Koipegabetze-erregailua (fosfatatze-tunela III) | Karbono monoxidoa (CO) | 5 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | |
| 6 | 48001693-06 | EA 9-Desugertzearen aireztapena (harshow-lerroa I) | Guztizko partikulak (GP) | 5 urte |
| | | | Guztizko kromoa ($Cr_G$) | |
| | | | Sufre oxidoak ($SO_x$) | |
| | | | Azido fluorhidrikoa (HF*) | |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$*) | |
| | | | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG* gisa neurtuta) | |
| 7 | 48001693-07 | EA 10-Desugertzearen aireztapena (harshow-lerroa II) | Guztizko partikulak (GP) | 5 urte |
| | | | Sufre oxidoak ($SO_x$) | |
| | | | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG* gisa neurtuta) | |
| 8 | 48001693-08 | EA 11-Desugertzearen aireztapena (kerne lerroa) | Guztizko partikulak (GP) | 5 urte |
| | | | Azido klorhidrikoa (HCl) | |
| | | | Sufre oxidoak ($SO_x$) | |
| | | | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG* gisa neurtuta) | |
| 9 | 48001693-09 | EA 12- Soldadurako gasen aireztapena (soldadura-eremua) | Guztizko partikulak (GP) | 5 urte |
| 10 | 48001693-10 | EA 13- Soldadurako gasen aireztapena (prentsa-eremua) | Guztizko partikulak (GP) | 5 urte |
| 11 | 48001693-11 | EA 19- Polimerizatze-labearen erregailua | Karbono monoxidoa (CO) | 5 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | |
| 12 | 48001693-12 | EA 20- Aire-errezelak polimerizatze-labearen epoxi pintura | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) | 5 urte |
| 13 | 48001693-13 | EA 21- Aire-errezelak polimerizatze-labearen epoxi pintura (sarrera) | Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) | 5 urte |
| 14 | 48001693-14 | EA 24- Berotze edo koipegabetze upelaren erregailua | Karbono monoxidoa (CO) | 5 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | |
| 15 | 48001693-15 | EA 25- Berotze edo koipegabetze upelaren erregailua | Karbono monoxidoa (CO) | 5 urte |
| | | | Nitrogeno oxidoak ($NO_x$) | |

* Ondorengo paragrafoan adierazten dena kontuan hartuta, BKEk atmosferan egindako neurketen txostenak erakusten dituen emaitzen arabera aztertuko da poluitzaileak behin betiko barne hartzen diren.

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol-erakunde (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurri, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren

isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Derrigorrezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak, eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

b) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

| Isurketa-puntua | Kontrolatu beharreko fluxua | Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak | Neurtu beharreko parametroak | Kontrolen maiztasuna | Kontrol-mota |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Industria-urak | X: 502.086<br>Y: 4.791.093 | Isurketa Araudiko parametroak | Aldizka | Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |

c) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, edo hala badagokio, kolektorera konektatzeko baimena ematen duen erakundeak, eta goiko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

e) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

| Adierazlea | Unitatea |
|---|---|
| Energia elektrikoaren kontsumoa/Lehengai-kontsumoa | Kwh/t |
| Gas naturalaren kontsumoa/Lehengai-kontsumoa | $m^3/t$ |
| Ur-kontsumoa/Produkzioa | $m^3/m^2$ zinkatzea |
| Sareko uraren kontsumoa | Kontsumitutako guztizko uraren %a |
| Putzuko uraren kontsumoa | Kontsumitutako guztizko uraren %a |
| Hondakinak sortzea / horri lotutako lehengai-kontsumoa | t hondakin / t lehengai |
| Pintura-kontsumoa | $m^2$ tratatu / kg lehengai |
| Airera isuritako EPER parametroak | kg/urte |
| Uretara isuritako EPER parametroak | kg/urte |

C.4.– Zarataren kontrola.

Sustatzaileak proposatutako kontrolak honako neurriak izango ditu:

● Plaka isolatzaileak instalatzea (pintura-eremua, orgak instalatzea).

● Makinak kentzea (prentsak).

● Gas natural erregailuetako tximinien irteeretan isilgailuak jartzea.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Bizkaiko Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteroko mantentze-lanei dagokienez, enpresak ohiko funtzionamendu-baldintzetan zein gelditze- eta abiarazte-egoeretan egingo ditu (asteburuak eta Gabonak) kutsadura ekiditeko.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (28730 epigrafea: alanbrezko produktuak fabrikatzea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Mebunik SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazkaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, bainu agortuak, koipegabetzeko disoluzio alkalinoak, hautsezko pintura, olio erabilia, etab. maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

l) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuri bat gertatzea eta isurtzeko muga-balioak gainditzea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

m) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.

- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

n) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzean, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Mebunik SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako Bigarren ataleko honako puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1.e) eta B.1.3.2.c) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak onartzen dituzten agiriak); B.1.3.1.k) (Poliklorobifeniloa izatearen adierazpena) B.1.3.1.n) eta B.1.3.2.e) (Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak erregistratzeko ereduak); B.1.4 (Iurzoruaren kalitatea babesteko baldintzak); C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola); C.1.1 (Isuri atmosferikoen erregistro-eredua); C.4 (Zarata neurtzeko proposamen zehatza); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Mantentze-lanetako emisioen eta hondakinen kalkulua); D.3.a) (Prebentzioko mantentze-lanetarako eskuliburua); D.3.g) (Produktu kimikoen biltegiratze-ziurtagiriak); D.3.h) (Larrialdi-kasutarako materialen zerrenda); D.3.i) (Kubetak husteko protokoloa) eta D.3.n) (Suteen aurkako babes-ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Mebunik SA enpresak Ebazpen honen xede den jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Mebunik SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Mebunik SA enpresari, Barakaldoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena. Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 18a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEN TXOSTENA

Mebunik SA enpresak Barakaldoko (Bizkaia) udalerrian sustatutako produktu metalikoak eta alanbrezkoak fabrikatzeko jarduerari ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduraren barruan ingurumen-organoak sustatutako jendaurrean jartzeko izapidean, hainbat alegazio-idazki aurkeztu dira.

Aipatu idazkietan Mebunik SA enpresari ingurumeneko baimen bateratua ez ematea eskatzen da, bere jarduera bizitegi-eremuen gertutasunarekin bateraezina dela uste dutelako.

Gai horrekin lotuta, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 12. artikuluak, ingurumeneko baimen bateratuaren eskaerak, besteak beste, instalazioa kokatuko den udalerriko Udalaren txostena jasoko duela ezartzen du, proiektuaren eta hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunaren egiaztagiri gisa, 15.artikulua jarraituz.

Zentzu horretan, 15. artikuluak honakoa dio:

«Interesdunak aurrez eskatuz, instalazioa kokatuko den udalerriko Udalak Lege honen 12.1.b) artikuluan aipatzen den txostena egingo du hogeita hamar eguneko gehienezko epean. Horrelakorik egin ezean, txostena beharrean txosten-eskaera aurkez daiteke.

Edonola ere, artikulu horretan araututako hirigintza-txostena negatiboa balitz, igorri den unea edozein dela ere, baina beti ere Autonomia Erkidegoan ingurumeneko baimen bateratua eman aurretik jaso bada, aipatu baimena emateko eskudun den organoak ebazpen arrazoitua emango du prozedurari amaiera emanez eta jarduerak artxibatuko ditu».

Aipatu 15. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Mebunik SA enpresak Barakaldoko Udalaren aurrean aurkezturiko idazkiaren kopia aurkeztu zion ingurumen organo honi. Idazki horren bidez, proiektua hirigintza-plangintzarekin bateragarri dela egiaztatzen duen txostena egitea eskatzen zuen.

Bestalde, aipatu arauaren 18. artikuluak honakoa dio: «instalazioa kokatuko den udalerriko Udalak, aurreko artikuluak aipatzen dituen agiriak jaso ostean, espedientea jaso eta gehienez hogeita hamar eguneko epean, bere esku dauden alde guztietatik aztertuta instalazioaren egokitasunaren inguruko txostena egingo du. Txostena ez bada aipatu epean bidaltzen, jarduerekin aurrera egingo da. Hala ere, epetik kanpo baina ebazpena eman aurretik jasotako txostena Autonomia Erkidegoko organo eskudunak baloratuko du».

Ingurumen organo honek Barakaldoko Udalari erreferentziazko espedienteari dagozkion agiriak bidali zizkion 2008ko urtarrilaren 14an, aipatu txostena igorri zezan. Udalak Mebunik SA enpresaren inguruan igorritako txostena 2008ko apirilaren 11n jaso zen.

Ebazpen hau jaulkitzerakoan, espedientean ez da Barakaldoko Udalaren hirigintza-txosten negatiborik jaso.

Gainera, Mebunik SA enpresak eskatuta, ingurumeneko baimen bateratua eskuratzeko ingurumen organoak izapidetutako espedientean enpresa sustatzaileak Barakaldoko Udalak 1999ko otsailaren 17an emandako jarduerarako udal-baimena zuela jaso da.

Beraz, Mebunik SA enpresak dagokion jarduera-baimena zuenez, proiektua dagokion hirigintza-plangintzak adierazitako xedapen-multzoaren araberakoa dela adierazten da.

Edonola ere, indarrean dagoen araudiaren arabera, Udalari dagokio hirigintza-antolamendu, kudeaketa, exekuzio eta diziplinaren eskuduntza.